


## PILOTALEKUAK ETA FRONTOIAK: GURE HIRI ETA HERRIEN ERREFERENTZIA BATEN EBOLUZIOA



*Ikaslea:* Gonzalo Ibarzabal Laka.

*Gradua:* Historia.

*Ikasturtea:* 2017/2018.

*Tutorea:* Jose Rodriguez Fernandez.

*Saila:* Geografia, Historiaurrea eta Arkeologia. Arkeologia jakintza-arloa.

**PILOTALEKUAK ETA FRONTOIAK: GURE HIRI ETA HERRIEN  
ERREFERENTZIA BATEN EBOLUZIOA**

Gonzalo Ibarzabal Laka

Euskal Herriko Unibertsitatea

**LABURPENA**

Arkeologiaren bidez gure inguruan dugun egitura arkitektoniko bat “biluztea” izango da lan honen helburua. Frontoia betidanik kontaktuan izan dugun elementu isila da. Euskara eta folklorea bezala, euskal kultura eta Euskal Herriarekin lotzen dugu. Berdin dio haur, heldu, pobre, aberats, nekazari, errege, emakume edo gizon, pilota herriaren joko izango da, inolako bereizketarik egin gabe.

Bere loraldia XX. mendean izan zuen, euskal diasporak bost kontinenteetan zehar hedatzean. Joko izatetik kirol profesionalizatu izatera pasatu zenean. Baina baita ere, frontoia “profesionalizatuko” zen. Honen adibide izango ziren denboran zehar izandako eraldaketa prozesu desberdinak, egun, era jarrai batean ematen ari direnak. Pilota jokoaren barruan, modalitate anitzekoak aurki ditzakegu: esku, zesta, pala, frontenis, ... Ez gara larregi sakonduko estilo bakoitzean, alde batetik, informazio ugari dagoelako eta bestetik, gaiaren haria galtzeko arriskua aurki dezakegulako. Lan honetan frontoia eta bere inguruaren azterketara bideratuko dugu, gizartearen elementu zentral bezala eta denboran zehar paisaia zein egitura propioan jasandako eraldaketan, euskal gizartean rol bereizgarri eta “isila” jokatuz mendeetan zehar. Horretarako kanpoko eta barneko frontoiaren faktoreak aztertuko ditugu. Konturatuko gara uste baino harreman estuagoa dagoela tokian tokiko herriko ekonomian, erlijioan, politikan eta kulturarekin. Eta ez “opio” gisa askok uste duten moduan, aisialdirako tresna bat balitz moduan herri xehea entretenitzeko eta apustuak egiteko.

Erabilitako metodologiari dagokionez, miaketa arkeologikoaren prozedura batzuk maneiatu ditugu. Adibidez, frontoi bakoitza UT (Unitate Topografiko) bezala identifikatuz edo espazio desberdinak geolokalizatuz, kanpoko faktoreak aztertzeko eta, oro har, informazio era arkeologiko batean antolatzeke nahian.

Tamalez, nahiz eta pilota genero maskulinoarekin erlazionatu, lan honen bidez ikusiko dugu nola emakume erraketistak aitzindariak izan zirela emakume kirolari profesionalen artean. Frontoia bezain isilak, haiek egindako borroka ez da galduko. Haien pausoak jarraituko ditugu eta azken urteetan egindako ekintzei esker, ahaleginduko gara emakumezko kirolari profesionalaren aurreko aldi loriatsuenetara bueltatzea.

Amaierako konklusioei dagokionez, frontoiaren eta pilota jokoaren gainbehera edo protagonismo falta horren galera azaltzen saiatuko naiz. Horretarako, XX. mendean Amerikan gertatutako prozesua eta gaur egun ematen ari dena argudiatuko dut era kritiko batean.

**AURKIBIDEA**

1. SARRERA .....	5
2. ERABILITAKO ITURRIAK ETA PROZEDURA METODOLOGIKOA .....	6
3. TESTUINGURU HISTORIKOA .....	7
4. DIASPORA ETA JOKOAREN HAZKUNDEA .....	10
4.1. ESTATU BATUAK: EUSKAL HOTELAK ETA FRONTOI PRIBATUAK ....	10
4.2. HEGO AMERIKA: BOLIVIA, BRASIL ETA TXILE .....	12
5. JOKOAREN KANPOKO IKUSPEGIA: EGITURAK .....	13
5.1. EZARKETA MAILAK.....	13
5.2. PILOTA PLAZAK.....	18
5.3. XX ETA XXI. MENDEKO ALDAKETAK .....	20
6. JOKOAREN BARNEKO IKUSPEGIA: MATERIALTASUNA ETA GENEROA .	24
7. AMAIERAKO HAUSNARKETA ETA KONKLUSIOAK .....	32
8. BIBLIOGRAFIA .....	34
9. ERANSKINAK .....	36

## 1. SARRERA

«Pilotak ohore du Eskual herrietan,  
zeren den ederrena joko guzietan.  
Eskualdunak gaztetik, pilota plazetan,  
AAgertzen du baduen odolik zainetan»  
(ADEMA, 1991, or. 128).

Pilota jokoak historia luze eta aberatsa dauka. Gaur egun afizionatu eta oihartzun sozial handiagoa jasango dute anglosaxoiek sortutako kirolak baina hauetako inork ez du izango 250 urtetik gorako bizitzarik.

Pilotaren lehenengo pausoak XVIII. mendean zehar kokatu daitezke (iturri idatziei esker), hala ere, jatorria antzinagokoa izan daiteke. Ezin izango dugu euskal pilotaren hasiera zehatz bati buruz hitz egin zeren eboluzio jarrai baten ondorioa da, mendeetan zehar iraungo zuena. Esan bezala, XVIII. mendean, lehenengo idatziak agertuko ziren, gehienak Iparraldetik. Bizkaia, Gipuzkoa, Araba eta Nafarroatik gutxi dakigu, hein handi batean garai hartako biztanleen artean idazteko ohiturarik ez zegoelako.

Iturri idatzien artean aurkituko genituzke dokumentu ofizialak (debekuak, kexak, auzitegiaren aurrean konpondutako gatazkak, ...) eta beste gai baten inguruan idaztean, pilota jokoarekin erlazionatutako zenbait aspektu aipatzean (elizkizunak, jaiak, ...).

Euskal Herrian bezala, Europako beste zonalde batzuetan ere ospe handia izan zuen. XVI eta XVIII. mendeen artean, pilota jokoa europar elitearen jokoa zen (ROVIRA, 1982, or. 19). Badirudi tenisak eta pilotak jatorri berdina izatea, “jeu de paume” frantses jokotik. Hollanderren arabera, euskaldunen oinarrizko ekarpena jokoaren eboluziorako pilota jokoa paretaren kontra garatzean eman zen. Une honetatik aurrera, jokalarien posizioak aldatu ziren, batak besteen aurka jokatuz, pilota paretaren kontra astinduz (HOLLANDER, 1978, or. 38).

Euskal Herriko herri kulturaren pilota denbora luzean zehar errotuta egongo zen. Gallopek zioen: “Euskal herri orotan, nahiz eta oso txikia izan, hiru elementu izango zituzten amankomunean paisaiari izaera eta xarma eskainiz. Lehenengoa, eliza; bigarrena, hilerria, ehorzleku desberdinez inguraturik; azkenik, frontoia, edozein tokitik gertu aurkituko zena. Esaten zen hiru elementu hauek osatuko zutela euskal arrazaren

sinbolo hirukoitza. Elizak, fedeari eutsiko zion; hilerriak, tradizioa mantenduko zuen eta frontoiak, aire zabaleko bizitza, gogor eta kementsua islatuko zuen” (GALLOP, 1970, or. 230). Hain zuzen ere, hiru elementu hauen fusioa gertatuko zen Euskal Herriko sazerdoteak pilotari atentzioa jartzean, haiek kirol honen praktikante bihurtzean.

Erremontearen kasuan, abiadurak eta mugimendu lirainek, publikoa txunditurik utziko zuten. Hori zela eta Lehen Mundu Gerran, euskaldunek bonba jaurtitzailerik hoberenak zirenean ospea zuten (ALTROCCHI, 1938, or. 417-424). XIX. mende bukaeran, joko aldatuko zen Euskal Herrian norbaiti bururatu zitzaionean amerikar kautxua erabiltzea pilotak egiteko.

## **2. ERABILITAKO ITURRIAK ETA PROZEDURA METODOLOGIKOA**

Lan honen funtsa arkeologiaren bidez, frontoiaren eraldaketa espaziala azaltzea izango litzateke herri eta paisaiaren azterketaren bidez.

Lan hau gauzatzeko hainbat erregistro erabili ditugu: iturri materialak, ahozkoak, kartografikoak, dokumentalak eta grafikoak. Bakoitzak dituen ezaugarriekin lana osatzen lagundu didate.

Ikerlan honek hiru atal nagusi izango ditu. Lehenik, frontoiak egitura bezala izandako hedapena euskal komunitatearen emigrazioari esker. Honetarako iturri dokumentalak lagungarri izango zitzaizkidan. Bigarrenik, frontoiak denboran zehar izandako eraldaketa prozesua, hots, kanpoko aldaketa. Honetarako ilustrazio desberdinak egin ditut azalpenarekin batera hobeto ulertzeko. Arkeologia zientzia honi jarraiki, baliabide digital (Photo-Paint eta Visor geoEuskadi) desberdinak erabili ditut Euskal Herriko eskualde desberdinetan dauden frontoiak kokatuz. Prozesu honetan, dena argi geratzeko, probintzia bakoitzari UT (Unitate Topografiko) bat eman diot: Bizkaiari UT-1000, Gipuzkoari UT-2000, Arabari UT-3000 eta Nafarroari UT-4000. Hauetan frontoi desberdinak kokatu ditut puntuen bidez, bakoitzak UT puntu konkretu bat jasoz. Nahasketarik ez sortzeko, probintzia bakoitzaren barneko eskualdeak, kolore diferentziaz desberdinduak izan dira eta Excel taula baten laguntzarekin, hauen arteko kokapena errazagoa izango da bisualki identifikatzea (eskualde zein taularen koloreak, bat datoz). Taulan, herri eta frontoiarekin batera, bakoitzaren eraikuntza data eta edukiera agertuko

zaizkigu. Informazio hau lortzeko, telefono eta posta elektronikoaren bidez, herri eta hiri bakoitzaren udaletxe eta artxiboekin harremanetan jarri naiz.

Ikerketaren muga espazialari dagokionez, Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako frontoiak aztertuko ditugu. Hauek Euskal Pilota Federazioak Asegarce pilota konpainiarekin adostutako frontoi profesionalak edo esanguratsuenak kontsideratzen dituztenak izango dira. Hasiera batean, Espainiako eta mundu mailako frontoien kasua aztertzea pentsatu nuen baina luzera eta denbora faltagatik, ikerketa euskal esparrura zehaztea erabaki nuen.

XX eta XXI. mendean, hirietako frontoietan emango den fenomeno azaltzeko Visor geoEuskadi eta SITNA tresnak erabiliko ditut. Kokapenaren arabera, hiru mailatan sailkatuko ditut: gertu, urrun eta periferian.

Materialtasunari dagokionez, Bilboko Euskal Arkeologia, Etnografia eta Kondaira Museoko euskal pilota edo frontoiarekin erlazionaturiko objektu esanguratsuenen sorrera eta jarraikortasuna uztartuko ditugu. Grafiko baten bidez baliatuta, elementurik ugariak eta garaiko herritarrek maizago erabiltzen zituztenak dokumentatzea erabaki dut. Tresna bakoitzak izango duen fitxa lagungarri izango zaigu objektu hauen atzean dagoen pertsonaren historia ezagutzeko.

Ikerketaren ildo metodologiko hau gauzatzeko, ahozko iturriak funtsezkoak izan dira. Zoritxarrez, askok (lotsagatik, momentuko denbora faltagatik,...) ukatu egin zuten elkarriketa grabatzeko ideari. Hala ere, zorioneko sentitzen naiz hauek eskainitako denbora, informazio eta arretagatik. Nahiz eta oso tarte txikian izan, posible izan zitzaidan emakume pilotarien inguruko informazioa lortzea, esparru honetan aditua den Iker Amarika elkarriketatuz.

### **3. TESTUINGURU HISTORIKOA**

Greziar zibilizazio aurretik, pilota jokoaren praktika gutxi ezagutuko zen. Susmatzen da historiaurreko gizakiek praktikatzen zutela baina aztarna materialak (hezur, egur, adarrak,...) ez ziren gaur egunera arte kontserbatuko. Pilota kolpatzeko harrizko tresnak erabili zituzten; teoria hau defendatzea, ordea, zaila izango zen, hauen erosotasun faltagatik, pisuagatik,... dela eta. Gainera ez zen inolako labar pintura edo grabaturik

aurkituko adierazpenetan, ehizarekin ez bezala. K.a. 2500. urtean, abeltzaintzaren jarduera ekonomikoa garatuko zuten herriek hasiera emango zioten joko honi. Beraien artaldeek lasai asko bazkatzen zuten bitartean, artzainak elkar entretentuko ziren.

Hau Nafarroako Aralar eta Urbasa zonaldeetan eman ahalko zen. Baina esan bezala, momentuz ez da inolako frogarik kontserbatzen. Pilota jokoaren lehenengo datua Egiptoko zibilizazioarekin loturik dago. Hain zuzen ere, Beni Hassan (Tebas) ehorztokian grabatuak aurkituz non emakumezkoak pilotan jokatzen eta dantzatzen agertuko ziren. Grezian ere jokatuko zen baina joko modura kontsideratuz, kirola izatearen baldintza Olinpiar Jokoetako diziplinei baitzegokien. Erromatarrek greziarrendik hartuko zuten. Vespasiano eta Alexandro Severok bere denbora librean pilotaren jokora arituko ziren. Erromatarrek erabilitako pilotak larruzkoak izaten ziren barruan luma, harea, zahi edo ehun oso prentsatua zutelarik. Erromatar inperioaren gainbeherarekin, pilota jokoaren erreferentziak galdu egingo ziren. 711. urtean arabiarrek Iberiar penintsulara iristean, ez zioten garrantzirik emango jokoari. Horregatik ez zuten honen inguruko ezer dokumentatuko. Hala ere, suposatzen dugu jendeak pilotaren praktikarekin jarraituko zuela. XIII. mendera arte berri gutxi izango genituzke. Monasterioko klaustroak leku aproposak bihurtuko ziren kleroko kideak denbora pasatzeko. Jokoa ez galtzeko eta herritarren artean zabaltzeko rol inportantea jokatu zuten (BALBOA, 2002, or. 13-14).

XII eta XIV. mendeen artean, pilotaren praktika klaustroetatik herri eta hirietara hedatuko zen. Honek zenbait monarka frantsesen debekua (Luis IX. eta Karlos V.) eta gogoia (Karlos VI. eta Luis XI.) piztu zituen. Garai honetan, Frantzian pilotaren inguruko erreferentzia ugari aurkituko ditugu, nobleziak sentitzen zuen pasioagatik lagunduta.

Gaztelan ere interesa zegoen baina Frantzian zegoenarekin alderatuta, gutxiago. Honen adierazle izango zen 1265. urtean, Alfontso X. ezarritako “Zazpi partiden legea”. Honen arabera, kleroko kideei debekatu egiten zitzairen pilotaren jokoa klaustroetatik kanpo praktikatzea.

Maila sozialari dagokionez, goiko klaseak nahiago zuten jokoa espazio txikietan (tripots ere deituak) gauzatzea edo jauregi eta komentuen barruan. Monarka frantsesen afizio handi honek eragin zuen XIII. menderako, jauregi eta nobleen egoitzek, pilota jokoa gauzatzeko lokalen prestaketa izatea. Nahiko orokorra bihurtu zen jokoa praktikatzeko



kantxak zituzten ostatuak, jabeek prestigio eta etekin ekonomiko lortuko zuten nobleen bisitekin. Gune hauetan sartzeko aurretik ordaindu behar zenez, herri xeheak ezin izango zuen bertan jokatu. Horregatik, aire zabalean jokatuko zuten. Hiriak harresiturik zeudenez (BENGOETXEA, 2008, or. 1148), hiri barnean espazio urritasuna zela eta, harresietatik kanpo jokatuko zuten. Hiriko populazioaren hazkundera eta egoera ekonomikoaren garapenarekin batera (batez ere, merkataritzaren gorakadarekin), harresiak protagonismoa galtzen joango ziren eta zenbait zati suntsituko zituzten egoera berriak bultzaturik. Momentu honetatik aurrera, barneko espazio berrien sorrerarekin, pilota jokoa kaleetan gauzatuko zen.

XIV. mendean zehar, pilota jokoa erreferentziak idatziko ziren Nafarroa eta Valentzian. XV. mendera arte pilotaren jokoa eskuzkoa izango zen. Baina Errenazimendu garaiko berrikuntzarako nahiak eta goi mailako klaseak beraien eskuak ez mintzeko, hainbat tresna inportatu zituzten jokoa aplikatzeko. Adibidez, erraketa Ekialde Hurbiletik eta eskularrua Italiatik ekarriz. Berrikuntza hauek ez ziren Euskal Herrian erabiliko XVIII. mendera arte.

XVII. mendean, nahiz eta Frantzia pilotaren hastapenak (“jeu de paume”) eman, gainbehera gertatuko zen. Monarka eta frantziar nobleek (bereziki Luis XV.a Borboikoa) pilotaren defendatzaileak zirenak, hemendik aurrera beste joko batzuk erabiliko zituzten denbora pasatzeko beraien klase eta estiloarekin bat zetozenak, billarraren kasu. Iraultza Frantsesarekin, herri xeheak aristokraziaren pilotarako tokiak hartu zituen baina denborarekin utzi egin zioten pilota jokoa praktikari, pilota jokoa nobleziaren sinbolo bezala identifikatzen zutelako. Gainbehera honek ez zuen Iparraldeko probintzietan eragingo, hauek euskal eta nafar identitatearekin harreman sendoa konpartitzen baitzuten. Ezaugarri, araudi eta garapen propioak emango ziren, euskal pilotaren “jaiotza” gertatuz (BASTERRETXEA, 2009, or. 91).

XVIII. mendean jokatutako partiduen, erabilitako tresnen eta pilotarien inguruko informazio zehatza lortuko genuke. XIX. mendean, pilotaren hazia behin betiko eraiko zen Euskal Herriko kirol nagusia bihurtu arte. Mende honetan zehar, pilotan nortasun-seinale propioak garatuko ziren (OLLAQUINDIA, 1982, or. 89).

#### **4. DIASPORA ETA JOKOAREN HAZKUNDEA**

Euskaldunak era masibo batean Ameriketara emigratzean, beraiekin batera kontinente zaharreko egitura soziokulturalak eraman zituzten eta ahal izan zuten neurrian paisaia, gizartean eta ekonomian proiektatuko zituzten. Oinarrizko ezaugarri bat landatar gizarte tradizionala garatzeko, auzoetan antolatzea izango zen, bizilagunen arteko laguntza bermatuz. Euskal komunitateak horrela jokatu zuen eskala handi batean, unitate bat izango balitz moduan.

Amerikan biltzen ziren kolektiboki bere interesak babestu eta bultzatzeko. Gaztelako Koroak Cadiz hautatu zuen portu bakartzat itsasontziak bertatik Ameriketara bidaltzeko, euskaldunak bertan bildu ziren 1540. urtean Euskal Nazioaren Kofradia sortuz, bere itsasontziak bertan ezartzeko helburuarekin. XVI. mendean, ontziteria honek, Espainia eta Amerikaren arteko itsas merkataritza mendean hartuko zuen. XVI. mende bukaera eta XVII. mendearen hasieran, Mexiko eta Mexikoren iparraldean (gaur egungo Ameriketako Estatu Batuetan) hedapen koloniala gertatuko zen.

Frantziar Iraultzak, karlistadak, herentzia praktikak, natura hondamendiak eta erabaki politikoek, euskaldunen emigrazioak bultzarazi zituzten Ameriketara XIX. mendearen bigarren aldian zehar. Gehienak Rio de la Platara lekualdatu ziren. Gainontzekoak, Txile, Peru, Brasil, Bolivia, Mexiko eta Estatu Batuetara.

##### **4.1. ESTATU BATUAK: EUSKAL HOTELAK ETA FRONTOI PRIBATUAK**

Hasieran euskal hotelak eta ostatuak, euskaldunen kontzentrazio guneetan ezartzen ziren aldi baterako edo betirako. Los Angeles eta San Frantzisko bezalako hiri handietan, Mountain Home (Idaho) edo Elko (Nevada) bezalako tokietan artzaintzara eta arrantxoetan lan eginez, edo Salt Lake City (Utah) eta New York bezalako tarteka ibiltzeko zonaldeetan kokatzen ziren nagusiki (BIETER & BIETER, 2005, or. 69).

Europako herrietako plazek bezala, ostatuak populazio euskaldun emigrantearen zentro soziokulturala bihurtu zen. Horietako ostatu askotan, frontoia zegoen. Frontoiak aisialdirako erabiliko zituzten euskal gazteek abeltzaintzan (ardi edo behiarena) lan gogorra egin ondoren, deskonektatzeko, denbora pasa bezala. Hala ere, denborak aurrera egin ahala, euskal komunitateen arteko pilota txapelketak ospatzen joan ziren,

komunitate bakoitzak ordezkariak hautatuz eta nola ez, apustuak eguneko ogi bihurtu ziren. Beraz, euskal hotelentzat frontoia edukitzea abantaila handia zen negozioarako. Arlo ekonomikoari dagokionez, diru iturri inportantea izango zen apustuetako portzentaje bat irabaztea eta partidua ikusten zuten bitartean, bezeroek edari eta jatekoa kontsumituko zuten. Aldiz, arlo sozialean, partiduak antolatzea ospea emango zion negozioari.

Dozenaka ostatu eraikiko zituzten Mendebaldeko Estatu Batuetan baina azkeneko 150 urteetan zehar alde batera utzi eta desagertu egingo ziren. Arrazoi honengatik ezinezkoa izango litzateke zehaztasunez jakitea zenbatek zeukaten frontoia eta hauen barruan, jokatzen zuten modalitate desberdinak zehaztea. Hala ere, estimazioen arabera, euskal hotel hauen erdiak edo bi herenak, ziur aski frontoia izango zuten. Gehienak eskuarekin praktikatzekoak izango ziren, nahiko eraikin arruntak baitziren. Baina bazeuden ere zestan aritzeko ahalmena zuten frontoiak, euskal hotel boteretsuenen jabetzan, adibidez, “Basque Hotel” zelakoa (ECHEVERRIA, 1988, or. 142-148).

Estatu Batuetako lehenengo euskal hotela 1850. urtean eraiki zen San Juan Bautistan (Kalifornia). Negozio honek taberna, jatetxea eta logelak izango zituen eskuragarri baina oraindik frontoirik ez zen eraikiko. Honen inguruko hipotesi bat izango litzateke ez zela oraindik iritsi euskaldun nahikorik eraikuntza honen bideragarritasuna bermatzeko. Aldi honetako informazioa nahiko sakabanatua dago. Gai honen inguruko informazioa Martin Biscailuz enpresariak, Estatu Batuetan bultzaturiko euskarazko lehen egunkariaren (*Escualdun Gazeta*) argitalpenarekin lortuko zen. Egunkari honetan, euskal komunitateari interesatzen zitzaizkion albisteak agertuko ziren: Euskal Herritik zetozen albisteak, euskal enpresariak jarritako lan eskaintzak, merkatuan zeuden zenbait produkturen prezioak, ... Frontoia izan zuen lehenengo hotela, “Hotel France” delakoa izan zen 1880. hamarkadan eraikia, bere jabeak iparraldekoak baitziren. Garai honetatik aurrera, euskaldunek, ostatu eta euskal hotelen artean bereizketa markatuko zuten, gaur egun erabiltzen dugun konnotazioarekin. Lehenengoak, txikiak eta egurrezkoak ziren. Bigarrenak, handiagoak eta eraikuntza material sendoagoekin (adibidez, harria) eraikiak. Eraldaketa honen emaitza, euskal immigrante kopuruarekin lotua egongo zen. Euskal hotel batek arrakasta lortzen baldin bazuen denbora gutxian, zonaldean beste euskal hotel bat eraikiko zen, enklabe etnikoak sortuz (ECHEVERRIA, 1988, or. 70).

Gutxienez 5 frontoi pribatu eraiki zituzten AEB osoan. 1915. urtean, Jordan Valley (Oregon) frontoi bakarra eraiki zen. Zonalde honek hainbat euskaldun erakarri zituen ardi abeltzaintzaren negozioan arituko zirenak. Frontoia igeltserotza ezagutzak zituzten emigrante euskaldunek eraiki zuten. Baker-en iritziz, Jordan Valleyko ekialdean zegoen harrobitik lortuko zuten harria eta inolako makineria berezirik gabe, ustiatu eta argamasarekin hamaika metroko altuera zuen pareta eraikiko zuten. Lehenengo generazioko euskaldunek hainbat txapelketa antolatuko zituzten Jordan Valleyko txapelduna determinatzeko. Beranduago, Idahoko euskal komunitatekoekin ere antolatuko zituzten partiduak. Distantzia luzea eta errepide nazional baten beharra ez ziren aitzakiak izango partiduak ospatzeko. 30. hamarkadan, frontoia tarteka erabiliko zuten, jokalaria helduak zirelako eta bigarren generazioko euskaldunak nahiago zutelako amerikar kirolak (saskibaloia, beisbola, futbola) praktikatzea. 1945. urtetik aurrera, frontoia apenas erabiliko zen, aire zabaleko filmak proiektatzeko (BAKER, 1972, or. 149).

#### **4.2. HEGO AMERIKA: BOLIVIA, BRASIL ETA TXILE**

«Han joko nazionala pilota da eta herrixka guztietan aurkituko zen kantxa bat»  
(GODOY, 1981, or. 149).

XIX. mende hasieran, euskaldun gehienak Potosin (Bolivia) ezarri ziren, zilarraren ustiaketan arituz. Bertan beraien kultura eta ohiturak utziko zituzten. Jada XIX. mende bukaerarako, harri harlanduzko frontisak existituko ziren eta gainerakoak adobearekin eraikiak Potosiko hirietan, Oruroko meatzaritza zentroan eta Cochambako probintzietan. 15 meatze baino gehiagoetan antzinako eta frontoi berriak existituko ziren. Denborarekin, hauetako asko botako zituzten, materialak berrerabiltzeko eta mineral lurren gainean eraikiak zeudelako. Gaur egungo frontoiak eraikitzeko hormigoi armatua erabiliko zuten (URZA, 1994, or. 50).

Brasilen, euskal pilotak garapen handia lortu zuen XX. mendeko lehen alditik, 1945. urtera arte. Data honetan, apusturako joko guztiak debekatu ziren. Brasiliar asko zesta puntara dedikatuko ziren eta euskal pilotariekin batera mantenduko zuten kirola Brasilen. Tieté, Banespa eta Club Atletico Paulistano taldeek hainbat frontoi eraikiko zituzten beraien bazkideek euskal pilota (esku, pala, zesta) praktika zezaten. Hainbat txapelketa antolatuko zituzten kirol hauek bultzatzeko (URZA, 1994, or. 69-70).

Txilen, joko honen praktikari, arabar familiako Garcia Hurtado de Mendoza Gobernadoreak (1535-1609) hasiera eman zion 1557. urtean. Honekin batera zetozen euskaldunek, euskal pilotaren gogoia zabalduko zuten. Euskal pilotak arrakasta lortu zuen eta hirietan zehar zabaldu zen. XVIII. menderako kantxa iraunkor bat egongo zen San Isidro Elizatik hurbil. Hala ere, jokoaren beherakada bat gertatuko zen hainbat arrazoiengatik: faktore politikoengatik (Gobernuak apustu jokoak debekatu zituen 1922. urtean eta honekin batera diru sarrera inportantea eten zen) eta faktore geografikoengatik (frontoiak hirietan egongo ziren elkarren artetik oso distantzia luzeetan kokatuak). Arrazoi hauek asko zailduko zuten zonalde desberdinetan txapelketak antolatzea jokoaren erabilera bultzatzeko. Jokoaren susperraldia gertatuko zen euskal migrazio korronte berriak bultzatu zituztelako: azken gerrate karlista, Kubako gerra, Afrikakoa eta 1936. urteko gerra zibila. Txileko pilota kantxen etsai nagusia lurrikarak izan ziren. Maiz gertatuko ziren eta esfortzu handiarekin eraikiak ziren antzinako kantxak suntsiaraziko zituen (URZA, 1994, or. 87).

## **5. JOKOAREN KANPOKO IKUSPEGIA: EGITURAK**

### **5.1. EZARKETA MAILAK**

Gaur egun ezagutzen ditugun frontoiak eboluzio bat jasan dute denboran zehar. Frontoiaren ezarketa mailaren determinazioa, sei mailatan sailkatuko zen espazio eta kronologia desberdinei dagokionez (CARBALLO, 2017, or. 124-126).

#### Oinarrizko maila (1. irudia)


Ezarketa maila honetan, pilotaren jokoa gauzatzeko tokian ez zen inolako elementu arkitektonikorik aurkituko (CASAUBON, 2003, or. 15). Hain zuzen ere, gune ez urbano edo hirietatik kanpo emango zen. Aditu batzuen arabera, historiaurreko gizakiek praktikatu zuten abeltzaintzaren jarduerak utzitako denbora tarteak aprobetxatuz. Maila honen inguruko erreferentziak bibliografietan, artxibo historikoetan, kartografian, margoetan eta toponimian aurki daitezke. Pilotasoro edo saroi bezala ezagutuko ziren oinarrizko maila honetako pilotan aritzeko tokiak. Jokatzeko espazio deserosoa izango zen, muino askorekin sator zulo eta karraskarien ondorioz.



1. irudia: Bi artzain pilotasoro batean ardiek bazkatzen zuten bitartean (elaborazio propioa).

### Lehenengo maila (2. irudia)

Ezarketa maila honi dagokionez, pilotaren jokorako espazioa konfiguraturik egongo zen eraikuntza baten artean. Hiriak harresituko zituzten kanpoko erasoetatik babesteko. Harresia, pareta modura erabiliko zuten jolasteko eta kanpoan arituko ziren, hiri barnean, espazioa murrizta zelako. Hala ere, harresia harlangaitza zenez, ez zuten gozatuko. Honen existentzia frogatuko zituzten erreferentziak: bibliografikoak, kartografikoak, artxibo historikoak, margoak, toponimia eta kaleko guneak izango ziren.



2. irudia: Harresiaren kanpoan jokatzen (elaborazio propioa).

Bigarren maila (3. irudia)

Ezarren maila honetan, pilotaren jokia kokaturik egongo zen eraikuntza bat edo zenbaitetan espazioa konfiguratzean. Eraikuntza hauetako zonaldearen parte bat (teilatua, altxaera edo konfigurazio arkitektonikoa) aprobetxatuko zuten jokatzeko, nahiz eta jatorriz, beste helburu baterako eraiki. Hauen adibide izango ziren eraikinen fatxadak, klaustroak, patioak edo bestelako egitura arkitektonikoen horma harlanduak, non, errebete edo frontis modura erabiliko zituzten. Horretarako interesgarriak izango ziren populazio edo hiri harresituen kartografia eta patio edo klaustroetan agertutako legendan.



3. irudia: Elizaren atzeko alde harlandua aprobetxatuz, pilota praktikatuko zuten (elaborazio propioa).

Hirugarren maila (4. irudia)

Ezarren maila hau definitzeko, pilotaren jokia eraikin bat edo hainbatek konfiguratutako espazioan kokatu beharko zen. Aurreko fasearen antzekoa baina kasu honetan, eraikuntza diseinatua izango zen pilotaren jokia gauzatzeko. Hau da, lurak, ez

zituen zuloak ezta harri koskorrik izango, orain lurra berdinduko zen eta eraikinaren horma harlanduarekin batera, lekua aproposa izango zen jokoak praktikatzeko. Honen inguruko dokumentazioa populazio eta hiri harresituen kartografian, patio eta klaustroetako legendan agertuko ziren.



4. irudia: Paretan harlandu eta lur lautuan jokatzeko (elaborazio propioa).

#### Laugarren maila (5. irudia)

Ezarketa maila hau, pilotaren jokoaren eraikuntza batek edo gehiagok konfiguraturako espazio baten barruan kokatzean lortuko zen. Eraikuntza hauetatik, bat baino gehiago jatorriz eraikiak izango ziren pilotaren jokoaren bertan emateko. Pilota jokoaren gauzatzeko, elementu arkitektoniko (errebote paretan, frontisa, ezker paretan) bat atxikituko zitzaion. Aurrez eraikitako eraikuntzak izango ziren, pilotaren jokoaren bertan garatzeko.






5. irudia: Horma harlandu eta zoru berdinduari, ezker pareta txikia gehituko zitzaion (elaborazio propioa).

#### Bosgarren maila (6. irudia)

Azken ezarpen maila hau emango zen jokoaren eraikitako hiru elementuetako espazio batean kokatu zenean. Nahiz eta espazio publikoa izan, espazio hau beste jarduerak batzuetarako ere erabiliko zen: merkatu, plaza edo bestelako herri kirolentzako. “Frontoia” osatuko zuten hiru elementuak definituko ziren: frontisa edo oinarrizko pareta, ezker pareta eta zorua (oso inportantea, harlandu motaren arabera).

Maila hau pilota jokoaren eboluzioaren ondorio izango zen. Espazio publikoa edo irekia definituko zen baina erabilera konkretu batera bideratua. Multzo urbanoaren parte, herriko plazaren inguruko eremuak hartuko zituen. Hau da, udaletxe eta elizetatik gertu kokatuz.



6. irudia: Pilotaren jokorako espazioa definiturik egongo zen (elaborazio propioa).

## 5.2. PILOTA PLAZAK

### Harresi barruko pilota plazak

Espazio berri hauek zenbait kasuetan Erdi Aroko hiri berrantolaketa prozesu planifikatuetatik sortuak ziren, populazioaren funtzio komertzial eta sozialen garapenerako beharrezkoak izan ziren. Pilotarekin batera, boloetan eta zezenekin aritzea ziren XVIII. mendeko populazioaren denbora pasa nagusiak. Pilota joko zuzenaren praktikarako beharrezkoa zen espazio luze bat edukitzea. Alde zaharrean, espazio oso mugatua zenez, pilota jokoak garatzeko tokiak, harresiz kanpo kokatuko zituzten, hiribilduetako ateetatik gertu, bide edo errebaez lagunduta (CHÁVARRI, 2016, or. 100-109).

Gipuzkoako lau herribilduetan (Tolosa, Segura, Villabona eta Elgoibar) bakarrik pilota plazak harresiz barne eraikiko zituzten. Plaza hauetan pilota jokoaz gain, hainbat ekintza ere gauzatuko zituzten: agora eta merkatu funtzioak betez.

Noizean behin hustu eta aisialdirako eta festarako espazio batean transformatuko zen, non, protagonismoa zezenak edo pilota partiduek izango zuten. “Zezen plaza” edo

“pilota plazak” ez zituzten berezko identitate espezifikorako elementuak osatuko, baizik eta erabilera puntualaren transformazioaren emaitzak izango ziren. Behin espektakuluarekin bukatzean, plaza publikoko izaera berreskuratuko zuen. Plaza publikoaren espazioa pilota plaza bezala erabiliko zen baina erabilera ez zen ekintza horretara soilik mugatu behar.

1672. urtean Plaza Zaharraren konformazioa eta gero, Tolosako udaletxeak 1689an, Plaza Berria planifikatzeko akordioa sinatu zuen. Plaza Berri honen helburua Plaza Zaharrak zituen akatsak hobetzea zen, espazio handi baten sorketa non merkataritzarekin (alondegi eta harategiarekin batera) lotutako jardueren eta aisialdirako jardueren (pilota jokoak toki preferentea okupatuz) garapena bilatzeko (CHÁVARRI, 2016, or. 325).

Plaza Berriko pilota tokiak, plaza konpartitu bezala, bateraezina izango zen bertan garatu zen jarduera komertzial eta sozialaren hazkundearen ondorioz. Horregatik, Tolosak 1860. urtean pilotaleku berri bat eraikiko zuen zabalgunearen kanpoaldeko zonaldean, San Frantzisko komentuariaren alboan. Plaza Berriaren espazioak, hiru mende igaro ondoren aldaketarik gabe iritsi zaigu gaur egun arte.

#### Harresiz kanpoko pilota plazak

Zuzeneko pilota jokoak nekez joka zitezkeen hiribilduen barneko erdigunean. XVIII. mendean, populazioak pilota tokiaren eraikuntza planteatzean, harresi kanpoko eremuak bilatuko zituzten, leku zabalak, ortuetako leketan.

Pilotalekuen kokapen eta erdigunearen arteko harremanaren artean lau azpitalde bereiz daitezke (CHÁVARRI, 2016, or. 122):

- Hiribilduaren ateetan, harresiz kanpo.
- Hesi alboan. Zenbait adibide aurkituko genituzke (non, hesiaren jarraikortasun izaerak nagusitasuna izango zuen), bere “alboetako” batean. Azpeitia, Errenteri, Hernani edo Mutrikuk mota honetako pilota plazak izango zituzten.
- Harresian.
- Errebaletan. Harresi kanpoko pilota plazaren barruan, mota hauetako bi adibide aurkituko genituzke: Bergara eta Deban. Beraien kokapen periferikoa erdigunearekiko eta jatorrizko Erdi Aroko zonaldea izanik, garatutako bide eta errebaletan lagunduta beste motekiko desberdinduak izango zuten.

### 5.3. XX ETA XXI. MENDEKO ALDAKETAK

Atal honetan Euskal Herriko hainbat hiri eta herrietako frontoien inguruko paisaia aztertuko dugu bien arteko konparaketa bat eginez. Lehenik, Markinako herria analizatuko dugu. Bertan aurkitzen den “Unibertsitate Frontoia” (UT-1023) aukeratu dugu, Euskal Herriko edozein herrietan gertatzen ari den fenomenoan sakonduz (ARRASTOA, 2017, or. 268). Frontoiak zeukan hasierako helburua aldatzen joango zen. Ondoren, hiriburuetako frontoien inguruko paisaiak uztartuz: Bilboko Bizkaia Frontoia (UT-1005) eta Club Deportivo (UT-1006), Donostiako Atano III.a (UT-2015), Gasteizko Ogeta (UT-3005) eta Iruñeko Labrit (UT-4013).

Markinako plano (7. irudia) aztertzen badugu, ikusiko dugu nola frontoia herriaren erdigunetik gertu kokatzen dela (ABRISKETA, 2005, or. 50). Frontoia herriaren parte izango da eta denentzat eskuragarri. Pilota jokorako prestatua dago baina beste ekintza batzuk antolatzeko ere baliagarria izango da: bertso txapelketak, herri bazkariak, mitin politikoak,...

Hau Markinan gertatzen da baina baita ere Euskal Herriko udalerrri askotan. Pilotalekuaren kokapena herriaren zentroan egongo zen. Taulari (ikusitako eranskinetako mapak) erreparatzen badiogu, antzemango dugu gainerako udalerrietan pilotalekuak duen kokapena. Analisi hau luzeegi ez geratzearen Bizkaiko, Gipuzkoako, Arabako eta Nafarroako 94 frontoi aztertuko ditugu. Hauek Euskal Pilota Federazioak Asegarce pilota konpainiarekin adostutako frontoi profesionalak edo esanguratsuenak kontsideratzen dituztenak izango baitira.



7. irudia: Markina-Xemeingo paisaia. Kolore gorri, frontoia kokatzen den tokia (iturria: geoEuskadi bisorea, egokitua).

Bilboko mapa (8. irudia) analizatzen badugu, ikusiko dugu nola aurreko frontoia (Deportivo) hiriaren barnealdean kokatuta zegoen. Azken urteetan frontoi handiago bat eraiki dute (Bizkaia) periferian kokatuz. Frontoiaren helburua aldatu egin da. Arlo ekonomikoa gailendu egin zaio identitate eta tradizioari. Pilota negozio izatera pasa da hein handi batean gizarteak derrigortua bere biziraupenerako. Materialtasunari dagokionez, aurreko garaiko frontoiak harri eta egurrezkoak (CARBALLO, 2014, or. 7) izango ziren. Gaur egun eraikitzen direnak, hormigoizkoak eta burdinazkoak izango dira. Kristala gero eta gehiago erabiliko da eta garrantzi handia emango diote argi gehiago sartzeari, irekiera sentrazioa ematen duelako eta energia kostuak aurrezteko. Bizkaia frontoiak 3000 eserleku izango ditu aurrekoak 1000 zituenean. Erabilera momentu puntualetan izango da baina oso ugaria (finaletan, finalerdietan, pilotari hoberen arteko partiduetan). Hala ere, aurreko garaietako bisita maiztasuna murriztu egingo da.



8. irudia: Bilbo hiriko paisaia. Kolore urdinez, antzinako frontoia eta morez, gaur egungo frontoi berriaren kokapena (iturria: geoEuskadi bisorea, egokitua).

Fenomeno hau Gasteizen (9. irudia) hasi zen Ogeta frontoiarekin. 1979. urtean eraiki zenean, Euskal Herriko frontoirik handiena bihurtu zen. Honek prestigioa eman zion

bertan antolatzen zirelako finalak. Frontoi handiak hiritik kanpo eraikiko zituzten alde batetik, hiriko populazio hazkundera zela eta ezinezkoa zelako barrualdean eraikitzea (kongestio edo metaketa zela eta). Beste alde batetik, eraikuntzarako partzela garestiagoa zelako. Amaitzeko, pilotaren helburua ez zen hiriko bertako populazioa entretenitzea, baizik eta ahalik eta afizionatu gehiago frontoi batean biltzea. Kanpoaldean kokatuz gero, kanpotik datozenak errazago izango zuten kotxea bertan aparkatzea.



9. irudia: Gasteiz hiriko paisaia: kolore gorriz, frontoia kokatzen den tokia (iturria: geoEuskadi bisorea, egokitua).

Donostian ere (10. irudia), antzeko fenomenoak gertatuko zen. Kasu honetan, kirol instalazioak kanpoaldean kokatuz (Atano III.a pilotalekua, Anoetako futbol zelaia,...).



10. irudia: Donostia hiriko paisaia: kolore gorriz, frontoia kokatzen den tokia (iturria: geoEuskadi bisorea, egokitua).

Iruñean (11. irudia), Labrit frontoia hiri barruan kokatuta dago. Baina frontoi handiago bat eraiki dute (Bizkai bezalakoa, 3000 eserleku dituena). Aldaketa hau hiri handietan ematen ari den fenomeno da, espazio faltagatik eta ekonomikoki aberasteko. Baliteke immigrazioak ere honetan eragitea. Bere garaian, Amerikara emigratu zuten euskal emigranteak bezala, kanpotik datozenak beraien kultura eta tradizioak mantentzen saiatuko dira. Beste kirol batzuei lehentasuna emanez.



11. irudia: Iruñea hiriko paisaia: hori kolorearekin, antzinako frontoia (Labrit) eta gorri, etorkizuneko frontoia kokatuko duten tokia (iturria: SITNA bisorea, egokitua).

Aldiz herri txikietan (5000 pertsona baino gutxiago) frontoiek hasieran zuten helburua mantentzen jarraituko dute. Markinako adibidea hartu dugu, baina eranskinetako taulei erreparatuz gero, ikusiko dugu nola herri askotan berdina gertatzen da.

Aipatzekoa da ere, euskararen eta pilotaren arteko harremana. Bizkaia (ikusi eranskinetan, 1. mapa), Gipuzkoa (ikusi 2. mapa) eta Nafarroako iparraldean (ikusi 4. mapa) frontoi gehienak kokatzen dira, tradizionalki euskara gehien hitz egiten den eskualdeetan. Aldiz, Araba (ikusi 3. mapa) eta Nafarroako hegoaldean (ikusi 4. mapa), gaztelera nagusitzen den eskualdeetan frontoia eta pilotaren praktika baztertuko zen. Joera horren aurka, azken denboraldietan ikastola eta euskararen erabileraren gorakadari

esker, pixkanaka pilotaren egoera hobetzen ari da. Horren adibide izango zen Bilboko zonalde ingurua.

Hiri eta herrietako frontoiek espazio desberdinak okupatuko dituzte denborarekin, plano bidez ikusgai direnak. Nik hiru mailatan banatu ditut: gertu (herriaren zentro edo udaletxetik 750 metrora baino gutxiagoko distantziara aurkitzen direnak), urrun (zentrotik 750-1500 metrora daudenak) eta periferian (1500 metrotik gorako distantziara aurkitzen direnak). Hasieran paisaiaren konfigurazioa aztertuz determinatu nuen sailkapena. Baina herriek duten espazio antolaketa desberdina denez, ez da lan erraza izan. Ez da berdina izango herri txiki eta hiri baten artean, era objektibo batean, sailkapena zehaztea. Ikerketa zehaztasun zientifikoarekin egiteko, distantzia zehatz batera mugatu dut.

## **6. JOKOAREN BARNEKO IKUSPEGIA: MATERIALTASUNA ETA GENEROA**


«Esan daiteke euskaldunak izateagatik, denek jakin behar dutela  
(haur, gazte zein helduek) pilotak fabrikatzen»

(BLAZY, 1929, or. 157).

Materialtasunari dagokionez, pilota jokoan aritzeko (frontoiaz gain), hainbat tresna aurkituko ditugu modalitate, toki eta kronologia desberdinen arabera. Hasierako prozesuetan norberak egingo zituen pilotak, zestak... baina beranduago, tailer espezializatuen agerpenarekin, hauek arduratuko ziren material eta teknika egokiaz.

